

# Ama izatearen GOZO GAZIAK

ENRIKE LARRARTE ARREGI

Zigilua: "Gobierno de Provincia. Guipúzcoa"  
Urgente.


Sr. Alcalde de Hernani.

Siendo necesario, para asegurar en la elección de las amas que han de criar al Regio Vástago que dé a luz S. M. la Reina nuestra Señora, saber con toda exactitud si concurren en ellas, sus esposos y padres todas las circunstancias que se requieren para tan delicada y honrosa distinción, digo a V. se sirva informarme a la mayor brevedad con toda reserva y seguridad posible acerca de si Manuela del Carmen Indaverea, natural de esa villa y en la actualidad vecina de San Sebastián y residente en el Barrio de Loyola, casada con José Ignacio de Echave, durante los años de su residencia en esa villa qué conducta ha observado durante su soltería.  
Dios guarde a V. ms. as. Tolosa 29 de Noviembre de 1853.

Sinadura: José M<sup>a</sup> de Michelena.

**H**onela dio Hernaniko Artxiboan dagoen eskutitz batek. Ikusi nuenean, gogora etorri zitzaidan zuela gutxi irakurriak nituen zenbait gauza.

Garai batean ohore handia izaten zen erreginen seme-alaben inude izatea; ohorea bakarrik ez, bizimodua soluzionatzeko modu



politta ere bai. Edozein emakumerentzat izan zitekeen loteriarik handiena zen. Hara, orain dela 200 urte gutxi gorabehera ereginaren haur batu bularra ematen zionak urtean 11.000 errialeko soldata jasotzen zuen; honen ordezkoek, 5.500 bakoitzak; eta ereginaren inudearen haurrari titia ematen zionak, berriz, 3.000 errial (inudeak ez baitzion bere haur propioari esnerik ematen; eginkizun hau beste baten eskuetan jartzen zuten). Horretaz aparte, inudeari, bere lana bukatutzat ematen zenean, honenbesteko itxuroso bat ematen zitzaion kolpean edo bizitza osorako pentsioa, opari moduan.

Horregatik, Hernaniko bat aukeratzeko ibili zirela ikusi nuenean, zertxobait idaztea pentsatu

nuen. Badu gai honek "kotilleo" kutsua, baina gaiak merezi duela uste dut.

Hasteko esan dezagun eskutitz honetan azaltzen den erregina Isabel II. dela, eta jaiotzera zihohan haurra, erregina honek izan zuen hirugarrenra. 1854eko urtarrilaren 5ean alaba bat izan zuen Isabel II.ak. Jaio, ondo jaio omen zen, baina katarro bat harrapatu eta handik hiru egunera hil zen.

Zein izan zen haur honen aita? Harritzekoa izan arren, gauzak ez daude garbi.


Hara: Isabel bere lehengusua zuen Don Francisco de Asisekin ezkondu zuten. "Ezkondu zuten" diot, ze, dirudinez, senarra ez zuen bere gustuko. Garai haietan ezkontzak familiartekoek antolatzen zituzten, interes ekonomikoek aginduta, ezkongaien arteko nahiak kontuan hartu gabe askotan. Gogoan izango duzue, noski, euskal errromantze hau: Atarratze jauregiko alabak, Nafarroara ezkondu duelako, aitari esandakoa apatzaten duena:

*Aita, saldu nauzu idi bat bezala  
bai eta destinatu, ail, Espaniara.  
Ama bizi izan banu, aita, zu bezala  
ez ninduzun, ez, salduko saldu nauzun  
bezala.*

Jende normalaren artean hau gertatzen bazen, pentsa nolakoak ziren errege eta erreginen arteko ezkontzak, era guztietako interesak tartean daudelarik.

Esan bezala, Isabel bere gogoz kontra ezkondu zuten Don Francisco de Asisekin. Don Franzisko honek, berriz, ez omen zion inolako aitzakiarik jarri ezkontzari. Alderantziz. Ezkontza hau antolatu nahian ibili zirenen artean bera ibili baitzen "primera filan". Badirudi moja batetaz, Sor Patrozinioz, aprobetxatu zela Isabelen baimena lortzeko. Moja honek santa izatearen fama zuen; Jesukristok gurutzean izan zituen bost zauriak berak ere bere soinean omen zituen. Milagroak eta guzti egina omen. Isabelek konfiantza osoa zuen monja honengan, eta Franziskok, hau jakinik, ez zuen aukera galdu; mojak Isabellengan zuen itzala ondo aprobetxatu zuen. Garbi dago Don Franzisko honek izen bereko santuaren antza gutxi zuela.

Francisco de Asisekin ezkondu behar zuela esan ziotenean, badirudi, Isabel garrasika eta



negar-zotinka hasi zela desesperaturik; nahiago zuela erregina izateari utzi eta moja sartu Don Franziskorekin ezkondu baino lehen. Baino Sor Patroziniok, badakizue nolakoak diren mojak, azkenean konbentzitu zuen.

Zergatik zion Isabelek halako beldurra bere lehengusu horrekin ezkontzeari?

Ba, Don Franzisko honek marimaritxo fama zuelako. Isabelek berak ere "Pakita" deitzen omen zion.

Baina, esan bezala, azkenean Sor Patroziniok konbentzitu zuen. Hau esaten omen



zion: "Neska, neska, etzan beldurrik izan. Bazekinat Don Franziskok emakume baten antza gehiago duela gizaseme batena baino, baina etzan dudarik egin, benetako gizon jatorra dun".

Azkenean, behintzat, Isabelek amore eman zuen eta 1846ean ezkondu ziren. Isabel iñoz baino ederrago joan zen bodara: "Isabel vestía un traje de moiré blanco con tres órdenes de blonda de plata, manto de crespón también blanco; llevaba en la cabeza una magnífica diadema de brillantes, al cuello un rico collar de las mismas piedras, y ceñía su cuerpo un precioso cinturón de brillantes, con lazos de igual pedrería que tocaban al suelo, y cruzábale el pecho la banda de María Luisa".

Ezkontza-bidaia La Granjara egin zuten, eta kronikek diotenez "El servicio de sus majestades sufrió un accidente que le obligó a permanecer 17 horas en un barranco, y el rey y la reina llegaron por la tarde a La Granja y no encontraron nada preparado para acostarse (...); tuvieron que hacerse por sí mismos la cama, y no encontrando las sábanas, tuvieron que utilizar las cortinas del cuarto". Segidakoak ez dakizkit, baina handik urte batzuetara Isabelek hau esan omen zion bat: "¿Qué piensas de un hombre que tenía sobre su cuerpo más puntillas y encajes que yo?"

Franzisko hau marimaritxo bat zela ez zen korteko kontua bakarrik. Kaleko jendearen artean ere zabaldua zegoen, eta honelako gauzak entzuten omen ziren:

*Paco Natillas  
es de pasta flora  
y se mea en cuclillas  
como una señora.*


Hau horrela izanik, erregina amorantez inguraturik bizi izan omen zen. Hauen artean bazen bat Isabelek "el general bonito" deitzen ziona, eta beste bat Madrilen "el pollo Arana" bezala ezaguna. Pentsa nolakoa izango zen Don Franzisko hau, ze egun batean hau esan omen zion Isabeli:

— "Mira, Isabelita, que me parece que el pollo Arana te la pega".

Oso urrutio joan gara geure txismorreo eta esamesetan, eta bueltatu gaitezen berriro harira.

Esan dugu Hernaniko Manuela Karmen Indaberearen galdera egin zutela, hau palaziora inude eramateko. Baina, nola egiten zen aukeraketa hau? Justu garai honetan nola egiten zen ez dakit, baina Isabelen aiton-amonen garaikoa bai. Ez dutuste diferentzia handirik egongo zenik. Hona hemen nola zen:

Erregina haurdun zegoelarik, palazioko medikua, beste batzuen laguntzarekin, erresumako bideetan barrena joaten zen inudeak aukeratzera. Aukeratzeko, hautagaien ezaugarri fisiko eta moralak ondo zehaztuta zeuden. Gorputzez eta animaz ongi hornitua egon behar zuen.



Gorputzez "Ha de ser de buena disposición, ni muy gruesa ni excesivamente delgada, que goce de buena salud, de color ni muy blanca ni muy morena; edad de 21 a 27 años; dentadura blanca, y firmes los pechos que no sean muy cerrados; que si fuese posible el pezón no pequeño en grueso; que sea de segundo o tercer parto; que en el tiempo de la cría no haya menstruación; abundante de leche y de buenas cualidades, que se incline más a tenué; que no haya padecido granos, herpes ni otras enfermedades contagiosas del cutis; de buen pelo negro o castaño." Ezaugarri hauetan kontuan izanik eta "con otros que en boca les comuniquen" medikuak emakumeen azterketa sakona egin ondoren, aukera egiten zuen eta, gero, emakumearen ezaugarri morales informazio biltzea hasten zen. Animaz, berriz, zintzoa, ondo hazi eta hezitako emakumea behar zuen, garbia eta txukuna, ez zezala jenio txarrik izan eta ardorik edo pattarrik edaten ez zuena.

Emakumearen bizimodua, ohiturak eta gainerantzeko jakin beharrekoak herriko bikarioari, medikuari eta emakumea ondo ezagutzen duten herritarrei galdetuz jakingo dira. Baita bere senar, guraso eta aiton-amonen zenbait xehetasun: hauen ohiturak, izandako ofizioak, ea kristau zaharrak ziren eta arraza onekoak (ez judu, moro edo agote, hau da, aiton-seme izan behar zuten). Informazio hau guztia bildu eta gero behar ziren zertifikatuak lortzen zitzuten.

Ondoren, aukeratuak kortera eramatzen zitzuten eta han egiten zen azkeneko selekzioa: zein izango zen inude titularra eta nor ordezkoak. Inude titularra palazioan bizi zen, baina berea zuen haur propioa herrian uzten zuten beste emakume batengatik. Ordezko inudeak palazio ondoko etxe batean jartzen zitzuten bizitzen, haurrak berekin zitzutela.

Eta...? galdeztu didazue, zertan bukatu zen gure Manuela Karmenen historia?

Ba... ez dakit. Esan dezaketen bakarra hauxe da: kasu honetan aukeratua izan zen inude titularra Zezilia Pastor izan zela. Eta amen.

**g**oazen orain beste gauzatxo bat kontatzera. Ez da gai bera, baina badu zerikusia erditze edo haurgintzarekin. Orain arte ikusi dugun historiak 150 urte inguru baditu, jarraian kontatuko duguna orain ia 300 urte gertatua da.

Auzi batean aurkitu dut hau. Testiguak 50etik gora dira. Hernaniko emakume batek Astigarragako jauregiko Don Juan Felipe Murgia auzitara eramango du. Zer dela eta?

*"Y dijeron que la dicha Manuela le ha puesto pleito al dicho Dn Juan Phelipe en el Tribunal del Corregimiento de esta Provincia de Guipuzcoa sobre decir que, siendo su hija doncella honesta, virtuosa y recojida, la quebró de amores el dicho Dn Juan Phelipe y la conoció carnalmente privándola de su entereza virginal y que, faltando a su obligación y dejándola con la nota (...), se quería excusar de cumplir con (...)"*

Don Juan Felipe hau 1710. urtean itzuli zen Astigarragara, bere herrira, Ameriketan urte asko egin ondoren, eta handik bi urtera Astigarragako alkate izendatua izan zen urte baterako.(Garai haietan alkateak urtero aldatzen ziren). Herrian hanka jarri bezain laister, 18-20 urteko neska gazteak kortejatzen hasi zen. Berak 40 urte inguru zituen, eta gizaseme sendo eta planta onekoa izan behar zuen.

*"Las feriaba con zintas"* da behin eta berriż errepikatuko den leloa. "(...)sacaron un día festivo las muchachas del varrio de la Yglesia de esta villa en los cavellos escarapelas de zintas encarnadas" "(...) otro día ymediatto festivo sacaron en la misma forma las del varrio de la montaña de Santiago de la misma color". Behin eta berriż antzeko testigantza irakurtzen dira. Zintak kolore guztitakoak dira eta txokolatetan ere bazuen presupostu ederra. Nesken izenak ere dexente dira. (Aurrera jarraitu baino lehen, esan beharra dago neskatxa guztia ez zirela Don Juan Feliperen sareetan erori. M<sup>a</sup> Antonia Arrietak, esate baterako, alaba Donostiarra bialdu behar izan zuen denbora luze samar baterako, axeria bere alabaren inguruan zebilela sumatu zuenean).

Alkate izendatu zuten urtean Don Juan Felipek hiru zezen-festa antolatu zituen, auzo bakotzean bat. Bat Santiagomendi auzoan, plaza zaharrean, Santiago egunean; bestea Ergobian, San Juan egunean; eta azkenekoa erdialdean,

Eleizalden. Testiguek diote harrituta daudela, inoiz ez dutela eta Ergobian zezen-festarik ezagutu eta, plaza zaharrean ere, ahaztuxea daukatela noiz egin zen azkenekoz, noizbait izan zenaren hotsa aditua duten arren. Zer dela eta, beraz, horrelako festak? Esamesek zioetenez, ordurako auzo guztietan "keridak" ba omen zituen gure oillarak. Zintak, txokolateak eta gainontzeko zintzilikarioak ez izan nahiko, antza, bere kuttunentzat eta zerbait "ponpoxoagoa" egitea bururatu zitzzion. Gainera, oilandak ondo jantzita ikustea ere gustatzen zitzzion. Gonazale porrokatua zela ezin uka.

Hiru neska azaltzen dira bereziki denen ahotan: Ergobian M<sup>a</sup> Luisa Pikuaga, Eleizalden Joxepa Garaiburu eta Santiagomendin M<sup>a</sup> Joxepa Alberro. Hala ere, hiru hauetatik, denetan kuttunena Santiagomendiko M<sup>a</sup> Joxepa Alberro izan behar zuen.

M<sup>a</sup> Joxepa honek ahizpa bat du, gazteagoa, Maria. Bi ahizpak bakarrik bizi dira Beizagan. Don Juan Felipe askotan etortzen zaie bixitan. Eta diotenez, bi ahizpok apainegi jazten hasi ziren. *"Dn Juan Phelipe vistió a la dicha Josepha de Alverro tan portada que la pusieron el nombre de Princesa".* (...) *"La vistió con tres saias de color y una de lamparilla, una almilla de tafettan azul y otra de paño de la misma color guarneida con galón de oro, una casaca de droguete, diferentes lienzos de los que llaman jironas con sus encages como en las camisas en el escote, dos o tres escarapelas para el cavello; así mismo se vistió la dicha María del Alberro con una saia de vaietta, otra de lamparilla, una casaca de droguete y las mismas escarapelas."* Ez zen gaizki portatzen gure "Don Juan Tenorio".

Beste bi oilandak apalxeago jantzi zituen. Joxepa Garaibururi *"Dos saias una de montalvan y otra de vaietta verde y una almilla"* eman zizkion eta gainera *"(...) la ferió con zapatos y medias"*. Eta M<sup>a</sup> Luisa Pikuagari *"(...) una saia de vaietta y casaca o almilla"*.

Zezenak Santiagomendin korritu zirenean M<sup>a</sup> Joxeparen "pantasiak" ikustekoak izango ziren; *"(...) estuvo en la ventana de una casa; y en un tablado que estaba por frente y pegante a dicha casa estuvo el dicho Dn Juan Phelipe durante dicha corrida; y la referida Josepha de Alverro en dicha ventana que estaba a poca altura de dicho tablado; y se allava la suso dicha vestida con gran porte como es la escarapela en el cavello, su almilla de paño azul con galón de oro y saia de color de fuego."*

Baina, bueltan-bueltan, azkenean komeriak. Hau ez zela kuixidadea eta Korrejidorearen Tribunalak parte hartu behar izan zuen, eskandalua nolabait mozteko. M<sup>a</sup> Joxepa Alberro Pasaiara eraman zuten aurrena, handik gero Oriora eta han erditu zen Don Juan Feliperekin izan zuen haurraz (lehen ere, Astigarragan bizi zela oraindik, abortoa izan zuen). Don Juan Feliperen amak, ere, Dña M<sup>a</sup> Teresak, ordurako Zumaiara alde egina izan behar zuen, semearekin karrerarik ezin zuela atera eta, ematen zizkion disgustuak jasa ezinik. Eta gure oilarra, Don Juan Felipe, Astigarragatik atera eta Hernanira etorri zen bizitzen. Egia esan, inoiz ez zuen Astigarraga utzi, bai Hernanin bai Astigarragan, bietan, etxea jarria baitzeukan.

Hernanira etorri eta, hemen ere, laister hasi zen oilarra kukurruka. Segituan egin zituen lagun minak 18-20 urteko neskatzen artean: M<sup>a</sup> Ignazia, Elbira Rosa, Manuela... etabar. Eta oillaren "andantzen" ondorioz M<sup>a</sup> Ignazia Lezon erditu zen, Elbira Rosa ez dakit non eta Manuela, berriz, hementxe, Hernanin bertan. Manuelaren haurra bataiatu, Urnietan bataiatu zuten gauzak, horrelako gauzak ilunpean egin behar baitira. Bainaz ez dirudi denak lotan zeudenik, testigu batik kasu egiten badiogu: "(...)y de allí en breve, como cosa de quince o veinte días, se alló la ttestigo frente a dicha Parrochial haciendo labor con jente de la vecindad que según la parece heran Gracia de Herausso, tía de la dicha María Martín, su criada María de Altuna, María Estevan de Aguirre, Ana de Elgueta y su madre Mariana, cuio apellido no save, y alguna de ellas tocó el caso de dicho Bauptizo y dixo que la criatura hera de Dn Juan Phelipe de Murguia y Manuela de Erauso, y fue comadre el hermano menor del dicho Murguia, llamado Dn Diego y una muger de Astigarraga y estuvo con ellos un arriero de Astigarraga (...)".

Ikus dezagun orain erditze hau nolakoa izan zen. Maria Etxarrik, Urnietako matronak, 42



urte, honela dio: "(...) la verdad es que un día de el hinvierno último llegó a la casa de la ttestigo, entre doce y una, la dicha Gracia con recado de Miguel de Oguilurretta, su amo, alcalde ordinario de la villa de Hernani, para que luego fuese la ttestigo a su casa, y no se le dixo a qué. Y luego, al punto, tomó un caballo y se fué en él hasta el hospital de Hernani y, dexando allí dicho caballo, pasó a pie a la casería de Luaban, propia del dicho alcalde, y allí en la cocina de ella a Manuela de Erauso (...) que estaba echada en la cocina sobre alguna ropa con extremos de partto".

Inziso bat: Aipaturiko Gracia hau alkatearen neskamea zen, eta hona hemen zer dioen 12

urteko alkatearen hiloba batek Gracia honi buruz. "Gracia salió de servir a su tío (...) el día lunes de Carnestolendas de este año y la echaron antes de tiempo por ser algo asquerosa". Polita, ezta? Jarraitu dezagun komadronaren hitzakin.

"(...)y dexó sosegada a la dicha Manuela con quien estavan, quando la ttestigo entró en dicha casa, su hermana María Angela de Erausso, muger lexíttima del dicho alcalde, otra muger que es madre de una hixa que parió de el difunto de Murguia y dicha hixa y otra hermana suia."

Aipatu digun beste emakume hau Marielus abizena duen alargun bat da. Bere bi alabekin denbora zeraman baserri hartan Manuela zaintzen, Don Juan Felipek hala aginduta. Manuelari erditzen laguntzeko agindua zuten, baina, ikusten denez, ez zituzten gauzak txukun egia eta komadronari deitu behar izan zioten. Eta honela jarraitzen du:

"Y de allí arrato remaneció en dicha casa Domingo de Erausso, hermano de las dichas Manuela y María Angela, y al oscurecer del mismo día vino también el dicho Miguel de Oguillurreta. Y habiendo oscurecido llegó la hora del parto de la dicha Manuela a quien teniéndola en sus brazos el dicho Miguel, que es cuñado suyo, parió a poco rato una hixa, allandose presentes la dicha María Angela y las tres referidas y Gracia, la criada, y no estaba allí el dicho Domingo de Erausso que se fue antecedentemente".

Orain, komadronak umea zeinena den jakin nahian, irrikaren irrikaz, zirika hasiko zaio Manuelari. Kontuan izan, irakurtzerakoan, testiguek euskaraz egiten zutela, ez baitzekiten erdaraz, eta paperetan irakurtzen duguna eskribanoek —garai hartako notarioek— euskaraz entzuna, erdaraz ahal zuten moduan jartzen zutela.

"Y, después que parió dicha Manuela y quedó sosegada, la dixo la ttestigo que dicha criatura tenía bravo pezcuezo y no sería su padre qualquiera, y dicha Manuela la respondió que no había sido alimentada con la corteza del maíz y hera de uno de narices levantadas (sudur-tente batena, alegría) que estaba lejos; y aunque la ttestigo no había oido del preñado de dicha Manuela hasta que la vió dicho día, ni sabía de quien lo estaba, como vió a la muger que parió de el difunto Murguía, su madre y hermana, y que éstas se huían al quarto de arriva de dicha casa y volvían a menudo a la cocina, la pareció

estaría en la referida casa el galán de dicha Manuela"

Azkar konturatu zen komadrona Don Juan Felipe ez zebilela urrutti, etxe barruan zibilela, baita Marielusen alaba bat, Manuelari erditzen laguntzen ari zitziona, haurdun zegoela, ze...

"(...) la que así parió del difunto Murguia estaba enzinta porque (...), en ttiempo que estaba con dolores del parto la dicha Manuela, por dos veces la dieron unas congoxas y pidió vino, y son señales de la preñez, demás que la ttestigo conoce a los quarenta días del preñado a la muger que lo está y la criatura de la muger que así parió del difunto Murguia tendría dos meses y medio. Y cuando la dieron dichas congoxas dixo la ttestigo a la suso dicha que de las rodillas avaxo se le hirían, que en ésto la quiso dar a entender del dicho preñado, y ella sólo la hizo un enfado".

Erditzen ari zen Manuela ere detaile honetaz konturatu zen eta, komadronak dioenez, "tenía algunos celos" eta "temía le diesen algún chasco" Zergatik? Manuelak bazuen susmoa Marielusen alaba hau ere Don Feliperen haur baten esperoan ote zegoen. Eta ez zebilen oso oker.

"Y, aunque las dichas Manuela y María Angela, su hermana, y demás referidas la pidieron a la ttestigo con instancias se detuviese la noche de dicho parto, no quiso; y aun la encargaron reciviese dicha criatura para crialo, lo que ttanpoco quiso, y se fue la misma noche a su casa la testigo a cosa de la una de la mañana, y dicha noche se quemó una casa en la villa de Andoain, que lo da por señal del tiempo en que fue dicho parto (...). Y lo que demás puede decir es que haora tres meses se vió la ttestigo con dicha Manuela y entonces la dixo ser dicho parto del referido Dn Juan Phelipe de Murguia (...)"

Eta, bukatzeko, hona hemen lehen jarri gabe azkenerako utzi dudana: komadronak nola ikusi zuen Manuela, baserriko sukalderra ailegatu zenean. Hara: "Y, haviendo rexitrado, alló que la criatura tenía uno de los brazos fuera del vientre de su madre, y le tenía endurecido dicho brazo por haber mucho tiempo que le tenía fuera; e inmediatamente ocurrió la ttestigo al remedio de untarle con aceite y, puesto manual, le puso dicho brazo para dentro del vientre, y reconoció no llegó todavía la hora del parto (...)" ♦